



AZTARNA

1

Prozesu  
pedagogikoa**BEGIRADA  
HEZI****IKASKUNTZA-  
HELBURUAK**

**Errealitateari modu kritikoan begiratzeko ikastea, pertsonen giza eskubide eta gaitasun ukatuak eta blokeatuak kontuan hartuta, pertsona batek duintasunez izateko eta bizitzeko behar dituen horiek, hain zuzen ere.**

Parte-hartzaileen adin-tartea

**DBHKO BIGARREN ZIKLOA,  
BATXILERGOA ETA  
HELDUEN HEZKUNTZA**

**FILTROA KENDU****Justizia sozialaren betaurrekoak****DINAMIKA:**

**Justiziaren betaurrekoak** sortzea da dinamika. Betaurreko horiekin, ezkerreko kristaletik, duintasun eta eskubide berdineko pertsona gisa ikusten da bestea, eta eskuineko kristaletik, berriz, ditugun desberdintasunak, gure beharren eta gaitasunen aniztasuna baloratzen da. Ideia hori hasierako ariketa gisa planteatu daiteke, lantaldeetan, bi galdera eginez:

- 1. Zertan gara berdinar pertsonak?**
- 2. Zertan gara desberdinak?**

Jaso eta bien zerrenda egingo dugu arbelean edo panelean.

Bigarren miaketa batean, **Giza Eskubideen Gutuna** jarriko dugu mahai gainean edo eztabaidan, eta, esate baterako, hark beste lege eta arau batzuetan duen isla, hala nola gure herriaren eraketan. Eta orain **eskubideen berdintasunaz** hitz egiten dugu, bai eta horiek **eskuratze** **berdintasunaz** ere, haien bermeaz eta sustapenez gain. Hausnarketa hori **2030 Agendako Garapen Jasangarrirako** Helburuekin ere lotu dezakegu.

Plastikoki diseina ditzakegu, taldeka, hainbat gizarte-kolektibori aplikatutako **Justiziaren betaurrekoak**: Nola ikusten ditugu Justiziaren betaurrekoekin (berdintasuna & diferentzia) ondoko kolektibo hauek gaur egungo gure gizartean (tokikoa eta/edo globala)?

- Gazteak
- Adinekoak
- Emakumea
- Landa-eremua
- Errefuxiatuak eta gerraren ondorioz desplazatuak (gaur egun ukrainarrez hitz egin dezakegu)

**ETA AMAITZEKO...**

Dinamika amaitzeko, eta betaurreko guztietatik ikasi dugunarekin, era generikoan diseina ditzakegu **Justiziaren betaurrekoak**. Betaurreko horiek, sinbolikoki, denok jarri beharko genituzke aurrerantzean besteei begiratzeko, eta, hala, gizartearen eta, bereziki, pertsonen ikuspegi bidezkoagoa izango dugu.



AZTARNA

1

Prozesu  
pedagogikoa

**BEGIRADA  
HEZI**

## Justizia sozialaren betaurrekoak



### FEDEAN OINARRITUTA LANDU

Seme galduaren parabola irakurrita, gogoeta egin dezakegu, halaber, gure begirada zein den gaurko seme-alaba galduetik, zein justizia-irizpide erabiltzen dugun "haien egoera epaitzeko eta baloratzeko": aitaren begirada errukiorra eta bidezkoa dugun edo anaia zaharrenaren begirada diferentzial eta gainekoa dugun. Bihotzarekin bakarrik ikusten da ongi, zioen Printze Txikiak, eta egia da justiziaren betaurrekoetan, haien kristalak juridiko-filosofikoak izan arren, ore enpatiko eta errukitsuz egindako armazoi batek bakarrik eusten diela kristal horiei.

# OHARRAK